



Geure mundutxoa

## ***Ikasbil 2.0, euskara- -ikasleen elkargunea***

*Eskarne Lopetegi\* eta Esther Isasa\*\**

### **1. Gaur egungo IKASBILen abiapuntua eta bilakaera**

HABEk *Ikaslearen gunea* martxan jarri zuenetik, aldaketa ugari izan ditu euskara-ikasleei zuzendutako webguneak, izenetik bertatik hasita. Adibidez, irakasleei zuzendutako *Dokumentu biltegiaren* edukia bertan txertatu zen, itxura berri bat eman zitzaion webguneari zenbait urteren ondoren eta web 2.0 guneen ezaugarri eta baliabideak ezarri 2012an (ikus, esaterako, Gomez, 2013: 10-11).

Gaur egun IKASBIL izenez ezagutzen dugun atari berrituarentzat, oso garrantzitsua izan da 2012/2013 ikasturtea, egindako hobekuntza horiek guztiak eta parte hartzeko eskaintzen dituen aukerak egonkortzeko eta sendotzeko balio izan duelako.

Bestalde, asko izan dira, baita ere, denbora horretan atariaren gainean nahiz atariarekin berarekin lan egiten aritu diren euskara-irakasle eta -ikasleak, ataria egunero bisitatuz, ikastaroetan parte hartuz eta eguneroko jardueretan webgunean aurkitu dituzten baliabideak txertatuz, besteak beste.

Euskara-irakasle eta -ikasle askorentzat, IKASBIL dokumentuak eta ariketak eskuratzeko webgunea da. Hala ere, hori baino gehiago ere bada, eta, horregatik, artikulua aurkeztu nahi dizugu, duen balioaz jabetzeko baliagarria izango delakoan. Beraz, lerrook irakurri ondoren, lortzen badugu zeure egitea IKASBILi etekin handiagoa ateratzeko ideiarekin bat, ez da gutxi izango.

---

\* E-Lopetegi@habe.org


\*\* e-isasa@habe.org

## 2. IKASBILen erabiltzaile-kontua

Ataria pixka bat ezagutzen dugunok jakin badakigu baliabide ugari bezain anitzak eskaini izan dituela IKASBILek gaur egun arte: testu idatziak, audioak, bideoak, ariketak, ariketa-sekuentziak eta abar baititugu bertan; baina orain arte ez du erabiltzaileen arteko harremana bultzatzeko aukerarik eman. Baliabideak eskuratzeko banku bat besterik ez da izan.

IKASBIL atari berrituak, ordea, erabiltzaileen arteko harreman hori sustatu nahi du, eta, horregatik, ezaugarri berri eta nabarmenetako bat da erabiltzaile bakoitzak (ikasle nahiz irakasle izan) bertan kontua sortzeko aukera duela eta, era honetan, IKASBILen sare sozialean parte hartu. Hori horrela, erabiltzaileak izena emango du atarian eskainiko zaion formularioan, posta elektronikoko helbide bat eta pasahitz bat idatziz.

1. irudia:



Izena eman ondoren, IKASBILen sare sozialean sartu ahal izango dira erabiltzaileak. Izan ere, atariaren helburua da, webguneak eskaintzen dituen baliabide guztien bidez, harremanetan jartzea euskara ikasteko interesa duten pertsona guztiak.

Edonola ere, izena eman nahi ez duenak, lehen bezalaxe, atariko eduki guztietarako sarbidea du, eta orain arte bezala egin ahal izango ditu proposatzen zaizkion ariketa nahiz ataza edo sekuentziak.

2.1. Zer esan nahi du, ordea, erabiltzaile izateak?

Pasahitza sartuta, atariko etxeko orrialdean sartuko da erabiltzailea. Bertan bistaratzen da bere buruari buruzko informazioa eta berari interesgarria iruditzen zaion guztia. Hala, orrialde honetan integratu eta jasoko da informazio guztia: egin dituen azken bilaketak, gustukoen dituen materialetarako sarbidea, erabiltzailearen ariketa-sekuentziak, etab. Gainera, nor bere gustura antolatu ahal izango du orrialdea, eskura izan nahi dituen edukiak nahi bezala antolatuz.

## 2. irudia:

---




---

Hona hemen, zehatzago, zer eta nola, atalez atal.

### 2.1.1. Nire kontua 3. irudia:

---



#### • Nire profila

Aukera honen bidez, erabiltzaileak atarian sartutako informazio pertsonal guztirako sarbidea du. Ondorioz, erabiltzailearen profilean dituen datu guztiak bistaratuko dira, eta, ohiko sare sozialetan bezala, nahi bezala aukeratu ahal izango ditu bere lagun-taldeari erakutsiko beharreko informazioa, argazkia, iruzkinak eta abar.

#### • Nire lagunak

Kontaktuak edo lagunak kudeatzeko modua eskaintzen du atal honek: lagunak aurkitzea, lagun-eskariak, lagunak gonbidatzea...

#### • Nire taldeak

Atal honetan, erabiltzailea izena emanda dagoen talde guztiak bistaratzen dira.

Interesen arabeko taldeak sortzen ahal dira. Adibidez, maila berean ikasten ari diren euskara-ikasleek talde batean elkartzeko modua izango dute, elkarrekin egon eta informazioa trukatzeko.

Era berean, euskaltegi, autoikaskuntzarako zentro edo Euskal Etxe bakoitzak ere bere talde propioa izateko aukera du IKASBILen. Talde

hau zuzentzeko, erakundeak kudeatzaile bat du, eta erabiltzaileen esku jartzen da bertan ikastegi horretako deialdiak, dokumentuak, ikastaroen egutegia eta, oro har, informazioa. Jakina, erakunde horiek duten talde berezi honek alderdi publikoak eta pribatuak ditu; publikoan, edozeinek ikusteko modukoak jarriko dira; pribatuan, berriz, taldekoek bakarrik ikustekoak (adibidez, zentroko ikasleek).

#### • **Jarduerak**

Erabiltzaileak berak eta bere lagunek egindako jarduera guztiak bistaritzen ditu IKASBIL atariak. Hona hemen zenbait adibide:

- Lagunen batek lagun berri bat onartzen duenean.
- Erabiltzailearen batek lagun baten horman zerbait idazten duenean, nahiz eta erabiltzailea bera laguna ez izan.
- Erabiltzailearen lagunek dokumenturen bat igotzen badute.

#### • **Nire horma**

Facebook-en antzera, IKASBILen ere, kontaktu edo lagun guztiak irakurriko dute nork bere *horman* idazten duena. Era berean, nork bere lagun *hormetan* idatzi ahal izango du, eta testua lagun guztiak irakurri ahal izango dute.

Edozein kasutan, erabiltzaileak bere *horman* idatzitako mezu guztiak borratu ahal izango ditu, bai berak idatzitakoak, bai lagun edo kontaktuenak.

#### 2.1.2. *Nire Dokuteka*

Pasahitzaren bidez sartu, eta *Dokutekan* erabiltzaileak bisitatu dituen dokumentu guztiak bistaritzen dira hemen. Informazio hau pribatua da, eta erabiltzaileak berak bakarrik ikusi ahal izango du.

#### 2.1.3. *Nire atazak*

Erabiltzaile batek IKASBIL atarian egiten dituen jarduera edo ariketa guztiak jasotzen dira hemen, baina izaera pribatua dute; hau da, erabiltzaileak berak bakarrik ikusi ahal izango ditu. Egiten ari den edo lehendik eginak dituen jarduera guztietarako zerrenda eskaintzen du atalak, dataren arabera antolatuta eta egoera adierazita (*egina, egiten...*), zein mailatakoa den, azken saiakeraren data...

Behin ariketa bat aukeratuta, egiteko modua izango du erabiltzaileak, eta, bukatu gabe utziz gero, hurrengo saioan utzitako lekuan irekiko da ariketa.

Bukatzen duenean, berriz, egin berri duen ariketa baloratu edo komentatu ahal izango du erabiltzaileak. Gainera, iruzkin hauek erabiltzaile guztiei erakutsi ahal izango dizkie, nahi izanez gero. Baina, hala erabakitzen badu, bere lagun-taldeari bakarrik erakusteko modua ere aukeratu ahal izango du.

2.1.4. *Nire gogokoak* Atarian lanean aritu den denboran gogokoetara erantsitako edukietarako sarbidea du erabiltzaileak, sortuko den zerrendako esteketan klik egin eta bertara joz. Nahi izanez gero, estekak ezabatzeko aukera ere badu. *Nire gogokoak* sailean bilduko ditu, beraz, gustuko izan dituen edukiak, behar dituenetako, berriro eskuratzeko moduan izan ditzan.

2.1.5. *Nire bilaketa* Bertan, egindako azken bilaketaren emaitza bistaratzen da. Aukera honekin, erabiltzaileak IKASBILen dauden milaka edukien artean behin eta berriro bilaketak egin behar izatea saihesten da. Esanguratsua bada egindako bilaketaren emaitza, zerrenda horretako edukiak pixkanaka landu ditzake erabiltzaileak, horietako batzuk une jakin batean, eta besteak hurrengo bisitaldietarako utziz.

### **3. Euskaltegiak, autoikaskuntzarako zentroak eta Euskal Etxeak IKASBIL atarian**

Zentroak *Google Maps*en oinarritutako irudi baten bitartez eskaintzen dira orain IKASBILen, *Euskaltegiak* izeneko atalean, eta, baten bati buruzko informazio gehiago lortu nahi izanez gero, nahikoa da bertan klikatzearekin, edo, bestela, horretarako eskaintzen den bilatzailea erabil daiteke.

Zentroei buruzko informazio orokor hau eskaintzen du IKASBILek:

- Izena
- Helbide postala
- Telefonoa
- Zentroaren webgunea
- Zentroaren deskribapena
- Euskaltegi-mota (librea, homologatua...)
- Sarea (AEK, IKA; Batuz, federatu gabea...)
- Posta elektronikoa
- Bestelako informazioa: zentro bakoitzaren ikastaroen eskaintza (Ikastaro hauek *Baliabideak* izeneko atalean ere bistaratzen dira, *Ikastaroak*en klik eginda).

Esan bezala, zentroek eskaintzen duten informazio publikoaren barruan dago ikastaroei buruzkoa. Ikastaro guztiak mailaka antolatuta azaltzen dira pantailan, zerrenda moduan, eta hauxe da irakur daitekeen informazioa:

- Ikastaroaren izenburua
- Maila
- Ikastaroaren hasiera- eta bukaera-data
- Ikastaroaren helburu didaktikoak
- Prezioak
- Informazio gehigarria: ikastaroaren edukia eskaintzen da, labur. Horretaz gain, izena emateko epea zein den ere adierazten da.

Norbaiti interesatzen bazaio, esaterako, 4. urratseko ikastaro bat Donostian, bilatzailean informazio hori zehaztuz gero, behar duen ikastaroa aurki dezake; betiere, momentu horretan inon horrelakorik eskaintzen bada.

Maila bera duten ikastaroen kasuan, alfabetikoki ordenatuta eskaintzen dira, bertan erabiltzen den metodologiari lotuta; hau da, aurrez aurrekoa den, on line egitekoa edota bi moduak konbinatuz eskaintzen den.

3.1. Euskaltegiak, autoikaskuntzarako zentroak eta Euskal Etxeak IKASBILen partaide

*Euskaltegiak* atalak duen beste ezaugarri garrantzitsu bat da aldatu egin dela euskaltegiak, autoikaskuntzarako zentroek eta Euskal Etxeek IKASBIL atarian daukaten parte-hartzea. Erakundeak berak erabakitzen du zer jarri nahi duen IKASBIL atarian, eta berea da informazioa jarri eta eguneratuta edukitzeko ardura.

Horrez gain, euskaltegi, autoikaskuntzarako zentro edo Euskal Etxe bakoitzak sor dezake bere talde edo komunitate propioa IKASBIL atarian, eta partaide direnentzat hainbat aukera eskaini: agenda, bloga, ekintzak, dokumentuak, ariketak... Aukera berri honekin, eskolaz kanpoko ekintzak eta harremanak dinamizatzeko oso tresna erabilgarria daukate eskura euskaltegi, autoikaskuntzarako zentro eta Euskal Etxe guztiek. Bistaratzen den informazioa norik ikusi ikastegiaren esku dagoenez, publikoak izango dira hainbat eduki eta beste hainbat, berriz, pribatuak (euskaltegi, autoikaskuntzarako zentro edo Euskal Etxe jakin bat osatzen duten komunitateko kideei bakarrik zuzendutakoa).

#### 4. Nola egin bilaketak IKASBILen

Eduki asko dituen ataria izanik, oso baliagarriak dira IKASBIL atariak eskaintzen dituen bilatzaileak. Hiru bilatzaile aurkituko ditu erabiltzaileak: bilatzaile orokorra, bilatzaile aurreratua eta bilatzaile gidatua.

4. irudia:



Ondoren deskribatzen dira bilatzaile horietako bakoitzaren eta bestelako tresna osagarrien ezaugarriak:

- 4.1. *Bilatzaile orokorra* Bilatzaile honek eremu hauek ditu:
- 1 Testua. Testua idazteko kutxa bat da, eta bertan hitz edo testu bat idazten ahal du erabiltzaileak.
  - 2 Erreferentzia edo eduki didaktikoaren erreferentzia-zenbakia. Erreferentzia honi esker, eduki didaktiko zehatz bat aurkitzeko modua dago, nola HABEK argitaratutako aldizkariren batean aipatzen dena, hala irakasleak ikasleei aipatu diena beren kontura lan egin dezaten, adibidez.
- Bilaketa egin ondoren, aurkitutako materialen datu hauek ematen dira emaitzan: izenburua, material-mota, deskribapena (baldin badu), gako-hitzak eta maila.
- 4.2. *Eduki didaktikoen emaitzen gaineko iragazkiak* Aipatu berri dugun bilatzaile orokorraz gain, IKASBIL atariak aurrez definitutako iragazkiak jartzen ditu erabiltzailearen esku, aurrez idatzi diren bilaketa-irizpideekin konbinatzeko modukoak direnak.
- Hauexek dira aurrez definitutako iragazkiak:
- Bideoak: *Dokutekan* egon, eta bideo-formatuarekin zerikusia duten eduki guztiak erakusten dira.
  - Audioak: Entzuteko modukoak diren eduki guztiak erakusten dira, dataren arabera antolatuta.
  - Idatziak: *Dokutekaren* edukiak iragaziko dira, eduki honek testu batekin lotura duen ala ez bereiziz.
  - Eduki didaktikoaren mailaren iragazkiak: Atarian dauden mailen balioak jasotzen dituen zerrenda da (A1, A2, 1., 2., 3. eta 4. mailak).
- 4.3. *Bilatzaile aurreratua* IKASBIL atariaren bertsio berrituan batu egin dira zaharrea zeuden bi bilatzaile aurreratuak: *Dokutekako* eta *atazetakoa*. Horrela, erabiltzaileak eremu jakin batean egin dezake bilaketa.
- Emaitzetan ematen den informazioa bilatzaile orokorraren kasuan ematen dena bezalakoa da.
- 4.4. *Bilaketa gidatua* Hirugarren bilatzaile hau berria da, eta erabiltzaileak aurkitu nahi dituen edukietara iristeko laguntza eman nahi du. Egokia da erabiltzaile hasiberri edota atariarekin trebatuta ez daudenentzat; eta, batez ere, erabilerraza da, oso erraz egiten baita bilaketa.
- Bilatzaileak hainbat galdera egiten dizkio erabiltzaileari, eta, horrela, pixkanaka lortu nahi duen helburura bideratzen du. Horrela funtzionatzen du:

- 1 Mailari buruzkoa da erabiltzaileari egiten zaion lehen galdera, zein mailatako materialak nahi dituen. Ez badaki ezer, hastapeneko materialak eskaintzen zaizkio, eta, ez badaki zein maila duen, maila jakiteko inkesta bat proposatzen zaio. Maila zehaztu ondoren, 2. puntura pasatzen da.
  - 2 Hemen zer egin nahi duen galdetzen zaio, eta aukera hauek ditu: irakurri, idatzi, entzun, hitz egin, ariketak edo denak.
  - 3 Urrats honetan, erabiltzaileak adierazi behar du aukeratu duen hori ariketekin ala ariketarik gabe nahi duen.
  - 4 Gero, gai bat aukeratu behar du, eta bilatzaileak gai hori bilatzen du izenburu, gako-hitz eta helburu didaktikoen eremuetan.
  - 5 Azken pausoa da emaitzak horrela ordenatzeko eskatzea: bisitatuena, baloratuena, aipatuena, berriena edo bestela.
- Emaitzak, hemen ere, aurreko beste bi bilatzaileetan bezala ematen dira.

#### 4.5. Bilaketaren RSSa

Bilatzaileak RSSa<sup>1</sup> eskaintzen du; alegia, eduki berriak banatu eta jasotzeko sistema bat. Izan ere, kontuan har dezagun edukiak (albisteak eta berriak, adibidez) maiz aldatzen direla gaur egungo webguneetan; sistema horren bidez eta aldez aurretik bilaketa-parametro batzuk ezarrita, *sindikazioa* edo harpidetza egiteko aukera du erabiltzaileak eta, parametro horiek dituen material berriren bat sartzen denean, informazioa jasotzekoa. Dena den, ordenagailuan RSS irakurle bat instalatu behar da, edo Interneten dauden hainbat jario-irakurletako batean<sup>2</sup> izena eman eta kontua sortu. Laburbilduz, aldaketen berri izateko, ez dago webgune guztietan barrena nabigatzen ibili beharrik, eta horretarako bidea ere eskaintzen du IKASBILek.

### **5. Nolakoak dira IKASBIL atariko ariketak?**

IKASBIL atarian, ariketa ugari daude *Egitekoak-Atazak* izeneko atalean. Ataza hauek audio, bideo edota testu baten gaineko lanketa didaktikoa proposatzen dute eta berehalako emaitzak eskaintzen; hau da, ariketa bat egindakoa, ikasleak jakin ahal izango du zenbat erantzun zuzen eta oker dituen, erantzun itxiko ariketak baitira gehienak.

Badira, hala ere, erantzun irekia duten ariketak ere, ikasleei zerbait idaztea eskatzen dietenak, adibidez, eta kasu horietan, eredia eskaintzen die atariak, ikasleek beraiek egindako lanarekin alderatu eta ondorioak atera ditzaten.

Atazak IKASBILen lehenengo orrialdean (azalean) nabarmentzen direnean, bereizketa bat egiten da: *Atazak*, alde batetik, eta *Talderako atazak*, bestetik. Azken hauen kasuan, gelan egiteko, beste ikaskide batzuekin batera egiteko jarduerak eskaintzen zaizkio erabiltzaileari.

Hori horrela, talderako ataza horiek bereizi egiten dira, *Talde-lana* izeneko etiketa batez. Horrela, bilaketan *Talde-lana* idatziz gero, taldean egiteko moduko atazen zerrenda eskainiko digu bilatzaileak.



Gainera, ariketa gehien dituzten atazak erraz bereiz daitezke, ikono gehiago dauzkatelako. Zenbat eta lanketa luzeagoa izan, orduan eta helburu nahiz formatu gehiago hartzen ditu bere baitan ataza horrek, eta, ondorioz, ikono gehiago ikusiko ditu erabiltzaileak.

5. irudia: *Ikono asko dituzten atazek ariketa gehiago dituzte*



2. maila     

★★★★★  0

**Gehiegi edateak ematen dituen lanak!**

Gure bizitzan gutxiago edo gehiago, denok izan dugu harremanik alkoholarekin. Zeinek ez du bizitzan behin gutxienez mozkorraldiren bat harrapatu?



*Atazak - 2013-ira-06 - 732 Bisita*

Kontuan izan ikono horietako baten gainean sagua jarritz gero, bere etiketa (ikonoaren esanahia) irakurri ahal izango dugula (maila, formatua, helburua...).

Ikasleei azpimarratu beharko genieke, erregistratutako erabiltzaile gisa egiten badituzte IKASBILen dauden atazak, sisteman gordeko dela lortzen duten puntuazio edo emaitza, eta, era horretan, egin dituzten atazak zein diren eta nola egin dituzten jakin ahal izango dutela. Gure ikasleak lagunak badira, irakasleok ere jasoko dugu informazio hori, eta baliagarri gerta dakiguke hurrengo lanak proposatzeko, ikasleen zalantza edo gabeziak atzemango baititugu.

## **6. IKASBIL ataria, zerbitzu irekia**

IKASBIL atariak dituen ezaugarriak izan ditugu hizpide orrialdeotan, baina bada guztien artetik azpimarratu nahi dugun ideia bat, atariak dituen baliabide berriei esker errazago gauzaten dena: erabiltzaileen parte-hartzea.

Izan ere, IKASBIL atariaren komunitateko kide izateak aukera ematen baitie euskara-ikasle nahiz irakasleei atarian dauden edukien gaineko iradokizunak egiteko, beren iritzia adierazteko eta, ondorioz, bistaratzen diren eduki horiek guztiak etengabe hobetzeko.

Hauxe da, zalantzarik gabe, IKASBIL komunitatea osatzen dugun kideon helburu nagusia: ahalik eta baliabide aberats eta egokienak eskaintzea euskara ikasi, irakatsi nahiz hobetu nahi duen orori. Eta eskaintza hobeia izan dadin dagoen modurik zuzenena erabiltzaileek beraiek pentsatzen dutenaz baliatzea denez, horretarako bideak ireki dira.

Baina bada besterik. Izan ere, IKASBIL ataria bisitatzen duen orok eman baitezake, era berean, bertan argitaratzen den edukiaren gaineko iritzia, eta atariaz arduratzen garenoi proposamenak helarazi.

Era askotara egin daiteke: gaiak proposatuz, ariketak eskatuz, premien berri emanez...

Azken batean, helburu berbera dute IKASBIL ataria egiten dugunon lanak eta euskara-irakasleenak: gure ataria euskara ikasi, irakatsi eta hobetzen laguntzeko tresna erabilgarria izatea.

Guztion ahaleginak batuz, denon artean euskara ikasten ari direnentzako atari bat egin nahi dugu, beti elkarlanean.

*Nora bidali proposamenak*

Beraz, zeresanik baduzu, atarian dago *Kontaktatu* izeneko aukera, eta bertan ikusiko duzu badela posta elektronikoko helbide orokor bat: [info@habe.org](mailto:info@habe.org)

Nahikoa da helbide horretara idaztea, zuen iradokizun, proposamen edo iritzia guri helarazteko.

## 7. IKASBIL ataria ikasgelan

IKASBIL ataria ikasgelan erabiltzeko proposamen-bilduma duzu hau.

Nahiz eta IKASBIL ikasleari zuzenean zuzentzen zaion, irakasleen tresna ere bada, eta balio dezake eguneroko eskoletan erabiltzeko edota eskolaz kanpoko jarduerak proposatzeko.

Trebetasunka antolatu ditugu proposamenak:

### 7.1. Idazmena

- *Dokuteka* ataleko entzungai, bideo edo testuak abiapuntu izan daitezke, ikasleek bertan jorratzen den gaiaren inguruko iritzi-artikuluak idatzi, kontaketa idatzia egin edota laburpen idatzia egin dezaten. Hori horrela, irakasleok gai bat proposatu edota, agian hobeto, beraiei aukeran utziko diegu, era horretara gustuko dituzten gaiak identifikatze aldera.
- IKASBILeko *Egitekoak-Jolasean* atalerako hainbat idatzi egin ditzakete ikasleek: errezeta, txiste, ipuin edo trikimailu bat idatz dezakete, eta IKASBILera bidali, bertan argitara eman dadin.

### 6. irudia: *Dagoeneko, badaude ikasleek bidalitako batzuk*

#### Alsialdirako / Errezetak



#### BERAKATZ ZOPA

**OSAGAIAK:** Litro bat ur, sei koilarakada olio, gatza apur bat, 4 berakatza eta ogi zati bat.

**NOLA EGIN:** Kazuela batean berakatza eta ogia zaituta ipintzen dira, gero ura erantsi. Polki-polki egosiko da, su motelean, 20 minutuz egosi. Oso bero zerbitzatu.

*Durango Udal Euskaltegiko Kristina eta Mertzxe ikasleek bidalia*



Mota:   
Bisita kopurua: 3196   
Iruzkina: 0



- Postalak idatzi. Jolasean atalean bertan postalak daude aukeran. Ikasleei elkarriz postalen bat bidal diezaioten eska diezaikegu.
- *Baliabideak-Irakurgai mailakatuak* atalerako iruzkina idatzi. *Euskara: irakurgai mailakatuak, 2013 gida* (Irizar eta Oliveri, 2013: 65) oinarri hartuta sortu da atal berri hau IKASBILen. Aukeran dauden libururen baten gaineko iruzkina idatz dezakete ikasleek, irakurri duten liburuaren gaineko iritzia emanez, zergatik gustatu zaien edo ez adieraziz, esaterako.
- Berria idatzi. Euskaltegian antolatu den edozein jarduera edo ekitaldi aitzakia hartuta, kronika egiteko eska diezaikegu ikasleei. Prestatzen duten testua eta argazkiak bidaliz gero, argitara emango da atarian.
- Oro har, IKASBIL atariko edozein edukiren gaineko iritzia/iruzkina idatzi. Orrialde guztietan eskaintzen da aukera, erregistratutako erabiltzaileak bertan idatz dezan.
- Ikasgelan egiten diren idatziak argitaratu. Ikasleek gelan egiten dituzten idazlanak argitara eman daitezke IKASBIL atarian, ataza edo azken eginkizuna benetakoa izan dadin eta ikasleek Interneten ikus dezaten. Motibagarriagoa da ikaslearentzat irakasleaz gain beste ikasle batzuk ere irakurtzeko modua izatea, nahiz eta erantzukizuna handiagoa ere baden, denak ez baitira prest egongo beren idatziak argitaratzeko. Irakaslearen esku dago ikasleak animatzea eta, nahi izanez gero, idatzi horiek IKASBILera bidaltzea, betiere ikaslea ados dagoenean. Bi adibide aipatu nahiko genituzke puntu honetan, IKASBILen aurkituko dituzuen bi eredu.

Lehena, *Ezkontzea, ideia ona?* izeneko idazlana<sup>3</sup> (David Zabalak, Durangoko Udal Euskaltegiko ikasleak idatzitakoa) eta bigarrena, *Oroitzapenez oroitzapen*<sup>4</sup> (Vanesa Alonsok, Maizpide barnetegiko ikasleak idatzia).

## 7. irudia:

**Dokuteka**



**Ezkontzea, ideia ona?**

Ezkontzeaz duen iritzia emango digu Durangoko Udal Euskaltegiko David Zabala ikasleak hurrengo idatzian.

Ezkontzea, ideia ona?

Badago oraindik elzatzik ezkontzen den bedeinkaturik. Esneko haginak jausi ostean lur sakratuak gehiago zapaldu ez duenik, astia amabizaren hitzen ere. Jasmatzeko opariak behin eskura izanda kristau-ikasbidea alde batera uzten dutenak "mekandios" bat noizbehinka botatzeko ezik. Hauek dira, izatez, elizako aldrearen bukatzen dutenak baietza ematen andregaiari.



Antza denez, argazki erreportaje pofitagoa geratzen delako egiten dute. Andregaiak merengeko gorritzarre traju zuri emaldol hosi jantzi mahi duelako. Hamar metroko belsoarekin eta alfombra gorriak. Printzesak bezala. Hipoteka ordaintzeko dirua justu-justuan irabaziko dute, baina egun horretan biolin eta guzti elzatzik pasaeatzea.

**Nire kontua**

NIRE KONTUA •  
NIRE DOKUTEKA •  
NIRE ATAZAK •  
NIRE GOGOKOAK •  
NIRE BILAKETA •

**Etiketak-lanok**

**Irakurriaren ulermena** dantza ezkontza ezkonberri eliza zabalak auto-eskola senargai david ematezag durangoko ue eztei-bidalak

**Interesatzen zaizu**

**3. maila**     
Ezkontzetako pertsonaia eta opariak  
Noizea saikoa umorezko eskete honetan qure arteko ezkontzetan... [1]  
Dokuteka - 2008-mar-10 - 10:43 Diata

**2. maila**   
Jon eta Jone 3:  
Ezkontza?  
Jon eta Jonek lan kontuak eta ezkontza kontuak dituzte alpaqal... [1]  
Atazak - 2007-mar-28 - 22:50 Diata

**1. maila**   
Iker eta Onintza  
Bikote gazte bat beste bikote batekin toatzen da kalean: udan ezkontzi... [1]

## 7.2. Entzumena

- IKASBILeko *Dokuteka* eta *Atazak* ataletan, audio- eta bideo-materialaz gain, ulermena lantzeko ariketa ugari dago. Multimedia jaitsi egin daiteke mp3 eta flv edo mp4 formatuetan; ariketak, berriz, PDF formatuan prest daude gelara eramateko. Etixerako lan gisa edota ulermenean arazoak dituzten ikasleek beren kasa lan egin dezaten erabil ditzakegu. Gainera, audio eta bideo gehienek transkripzioa dute. Ikasleek beren kasa lan egiteaz gain, irakasleak aukeratu eta gidatu dezake ikaslea, bere mailarako edo dituen ulermen-beharrei erantzuteko moduko materiala zein den adieraziz.
- *Egitekoak-Jolasean-Irrati-nobelak*. Hauek dira eskura dauden irрати-nobelak: “*Azken eguneko bidaia*”, “*Hotzikarak*”, “*Jon eta Jone*”, “*Xanti, eta konpainia*”, “*Maite, maite, maitea*”.
- *Kantu-kantari* (euskal abestiak). Abesti guztiek dute bere partitura eta hitzak. Gainera, audioak midi edo mp3 formatuetan, jaisteko moduan.
- *Ele-alea irratsaioak*. 2010eko otsailean eman zion hasiera *Ele-alea* irratsaioari Euskadi Irratiak, Xabier Sukia kazetaria aurkezle zuela eta HABErekin lankidetzan. Geroztik, astero-astero, euskaldun berriei zuzendutako saio honek euskara lantzeko proposamen eta informazio ugari eman zuen, 2013ko ekainean emititzeari utzi zion arte.
- *Kerman* saileko bideoak. ETBren eskutik iritsi zitzaigun *Kerman*, *mintzalagun bila*, eta, nahiz eta gaur egun ez den telebistan emititzen, bideo guztiak IKASBILen daude ikusgai. Gainera, askok, ataza bat daukate lotuta, eta, horrela, proposamen didaktikoa eskaintzen zaie. Ondorioz, bideoa aitzakia hartuta, atal bakoitzean bi eduki lantzeko aukera ematen zaie ikasleei.

### 7.2.1. Transkripzioen lanketaz, bi hitz

Esan dugun bezala, audio- eta bideo-dokumentu askok dute transkripzioa IKASBILen. Prozedura orokor gisa gomendatzen da lehen entzunaldia beti transkripziorik gabe egitea. Ikasleek bakarka ulertu dutena talde handian partekatuko dute, bakoitzak jasotakoa osatze aldera. Ondoren, transkripzioa aurrean dutela entzunaraziko diegu berriro dokumentua, eta, azkenik, transkripzioaren gainean egingo dugu lan beraiekin: hiztegia, egitura ezezagun edo berriak, esamoldeak, etab. Ahozkotik idatzira dauden aldeak azpimarratzea ere komeni da.

Lanketarako beste aukera bat litzateke ikasleei beraiei eskatzea hainbat entzungai transkribatzea. Kasu honetan, kontuan izan behar dugu transkribatzea oso lan zaila dela eta denbora dezente eskatzen duela eta, ondorioz, entzungai motzak transkribatzea eskatu beharko diegula.

## 7.3. Irakurmena

IKASBIL atarian Dokutekan eta Atazetan testu eta ariketa ugari aurkituko ditugu, ikasgelan nahiz ikasleek beren kasa irakurri eta lan ditzaten.

Ikasgelan: Testuak hartuta, hona hemen ikasleekin egin ditzakegun hainbat lan:

- Testuaren laburpena egin.
- Ideia nagusiak azpimarratu/bigarren mailakoetatik bereizi.
- Informazio zehatza bilatu.
- Hiztegiaren lanketa.
- Testuaren xedea/hartzailea identifikatu.
- Testuko iritziak eta datu objektiboak bereizi.
- Testuaren gaineko galderei erantzun/testuaren gaineko galderak prestatu.
- Testuan jorratzen den gaiaren gaineko eztabaidarako puntuak idatzi.
- Testuan jorratutako gaia gehiago zabaldu, informazio gehigarria erantsiz.
- Testuan jorratutako gaiaren gaineko beste testuren bat bilatu.
- Testuari izenburua aldatu/jarri.
- Izenburua irakurrita, testuan irakurriko dena aurreikusi.
- Paragrafoak ordenatu.
- Testuko informazioa taula batera ekarri.
- Testua ozenki irakurri.
- Testuko pasarteren bat itzuli.
- Testuko pasarteren bat berridatzi, beste egitura batzuk erabiliz.
- Testua berridatzi, nori zuzenduta dagoen/nork idatzi duen aldatuz.

*HABE* eta *OSATUZ* aldizkariak ere eskura daude *Baliabideak-Aldizkariak* atalean, baita *UNESCOren albistaria* ere, 4. mailarako oso testu egokiak dituen.

*Irakurgai mailakatuak* atala. *Baliabideak-Irakurgai mailakatuak* atalean proposatzen diren liburuetatik aukera dezatela ikasleek gustuko dutenen bat, etxean irakurtzeko. Gainera, liburuetako batzuek atalen bat dute PDF formatuan, doan irakurtzeko moduan. Beste batzuek, berriz, irakurmena lantzeko ariketak eskaintzen dituzte: ulermen-galderak, gramatika eta mintzamenerako proposamenak, etab. (Erroa argitaletxeko liburuetatik hiruk).

7.4. *Mintzamena* Nahiz eta IKASBIL atariak ez duen mintzamena lantzeko materialik eskaintzen, lehen aipatu ditugun *Dokuteka* ataleko audio, bideo edo testuak hizpide izan daitezke: ikasleek laburtu egin ditzakete, berriz kontatu edo beste ikasle bati adierazi ahoz, edota beren iritzia adieraz dezakete dokumentuetan (audio, bideo nahiz testu izan) jorratzen den gaiaren inguruan.

Idazmenean aipatu dugunaren haritik, idazlanez gain gelan grabazioerik egingo balitz, posible litzateke atarian argitaratzea ikasleek sortutako audio edo bideo horiek, eta, horregatik, honelako lanak egitera eta HABEra bidaltzera animatzen zaituztegu.

### 7.5. Gramatika

IKASBIL atarian, euskararen gaineko azalpen gramatikalak aurkituko ditu erabiltzaileak:

- *Gramatika gaitasuna lantzen*. Jatorriz Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eskutik argitaratutako *Gramatika gaitasuna lantzen* liburuaren bertsio elektronikoaren egokitzapen honetan, liburuan argitaratutako gramatika-edukiak garatu dira. Batetik, azalpen teorikoa dago, eduki horren ezaugarriak eta erabilera zertan den azalduz; eta, bestetik, eduki horiek lantzeko zuzenketa automatikoa duten ariketa-sorta dago eskura: baliokideak eman, itzulpenak egin, egiturak berridatzi, perpausak lotu, hutsuneak bete, esaldiak moldatu...
- *Baliabideak-Hizkuntza arauak-Euskara hobetzen* atala. Hemengo edukiak etiketa hauen arabera bereizten dira: esapideak, lexikoa, deklinabidea, izen-sintagma eta adierazpide linguistikoak.
- Bilaketa eginez. Gramatika-eduki jakin bat idatzita (adibidez, bilaketa-eremuan *mugagabea* hitza idatziz), atarian dauden dokumentu guztiak aterako dira zerrenda batean. Dokumentuak diren neurrian, izan daitezke audio, bideo, testu edota azalpenak.

### 8. IKASBILen gaineko datu batzuk

Segidan, atariaren gaineko datu jakingarri batzuk dituzu irakurgai.

- Nongoak dira IKASBILeko erabiltzaileak?

Bizkaitarrak dira IKASBILeko bisitari gehienak. Gipuzkoarrak eta arabarrak datoz atzetik, eta, Espainiari dagokionez, Madril eta Bartzelonakoak dira, nagusiki.


8. irudia:



- Noiz bisititzen dute IKASBIL erabiltzaileek?

Nabarmena da astelehenetik ostiralera bisita gehiago daudela asteburuan baino eta ikasturtean zehar (irailetik ekainera bitartean) askoz ere bisita gehiago dituela atariak udan baino. Ondorioz, esan daiteke jardun akademikoari lotua dagoela erabiltzaileek IKASBIL bisitatzea eta, ondorioz, eskolarik ez dagoenean uzten diotela bisitatzeari.

9. irudia:



- Zenbat bisita ditu IKASBILek?

2011 eta 2013 urteetako datuak alderatuz, bisitari-kopurua zertxobait jaitsi bada ere, atzematen da, oro har, gero eta denbora gehiago ematen dutela (7 minutu inguru) pertsona horiek atarian eta tarte horretan orrialde gehiago bisititzen dituztela.

Bisitari berrien kopuruak, berriz, gora egin du.

10. irudia:



28.866 usuarios han visitado este sitio.

Visitas

57.022

Número de páginas vistas

401.168

Duración media de la visita

00:06:40

% de visitas nuevas

36,46%

Visitantes únicos

28.866


Páginas / Visita

7,04

Porcentaje de rebote

34,65%

■ Returning Visitor ■ New Visitor



- IKASBILeko zein eduki edo orrialde da bisitatuena?

Datuen arabera, erabiltzaile gehienek atariko lehenengo orrialdea (home) da gehien bisitatzeko dutena; hau da, gehiengoak orrialde nagusi horretatik jotzen du barruko edukietara.

Atalen artean, berriz, *Egitekoak* eta *Baliabideak* dira hurrenez hurren erabilienak.

- Zein tresna erabilia bisitatzeko dute erabiltzaileek IKASBIL?

Oraindik ere, erabiltzaile gehienak ordenagailu batetik konektatzen dira atarira, baina nabarmen hazi da azken hilabeteotan smartphonetik edota tablet batetik atarira jotzen duten pertsonen kopurua.

- Nolako bilaketak egiten dituzte erabiltzaileek atarian?

Mailari lotutako bilaketen artean, 1. mailakoak dira gehien bilatutako edukiak. Ondoren, 3. mailako dokumentuak leudeke; segidan, 2. Mailakoak; eta, azkenik, 4. mailakoak dira erabiltzaileek gutxien bilatzen dituztenak.

Formatuari dagokionez, audioak dira estimatuenak. Ondoren, idatziak (testuak) eta, azkenik, bideoak.

Eduki didaktikoari dagokionez, berriz, ahozkoaren ulermena lantzen duten edukiak dira gehien bilatzen direnak. Horien atzetik, irakurriaren ulermena lantzekoak eta lexikoaren lantzekoak zuzendutakoak. Azken postuan, berriz, adierazpide linguistikoaren gainekoak daude.

## **9. IKASBIL, ohiko sare sozialetan ere bai**

IKASBILen sare sozialaz aritu gara aurreko puntuan, baina ez dugu ahaztu behar ohikoak diren hainbat saretan ere aurkituko dugula atariaren berri, hona hemen:

Facebook-en bi leku ditu IKASBILek: orrialdea, publikoa dena, eta profil arrunta, lagun egiteko modukoa. Hona hemen estekak:

<https://www.facebook.com/pages/Ikasbil-HABE/294975380566465>  
<https://www.facebook.com/ikasbil.habe>

Twitter-en, aldiz, helbide honetan du IKASBILek bere profila:

[http://twitter.com/ikasbil\\_habe](http://twitter.com/ikasbil_habe)

Google + sarean, azkenik, hemen:

<https://plus.google.com/112449060664191554364/about>

Lagun izanda, *atsegin dut* botoian klik eginda edo *jarraitzaile* izanda, IKASBIL atarian eduki berri bat argitaratzen den bakoitzean, honen berri jasoko du erabiltzaile/jarraitzaile/lagun egiten den pertsonak, RSS jarioen antzera. Modu berri bat, beraz, uneoro jasotzeko atariaren berri.



## 11. irudia:



### Oharrak

1. Really Simple Syndication
2. Adibide batzuk: Aurki, RssReader, FeedReader, Netvibes, DigReader
3. [http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/dokutekako-fitxa?p\\_p\\_id=56\\_INSTANCE\\_fLB1&p\\_p\\_lifecycle=0&p\\_p\\_state=normal&p\\_p\\_mode=view&p\\_p\\_col\\_id=column-1&p\\_p\\_col\\_count=1&groupId=10138&articleId=1298626](http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/dokutekako-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_fLB1&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-1&p_p_col_count=1&groupId=10138&articleId=1298626)
4. [http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/dokutekako-fitxa?p\\_p\\_id=56\\_INSTANCE\\_fLB1&p\\_p\\_lifecycle=0&p\\_p\\_state=normal&p\\_p\\_mode=view&p\\_p\\_col\\_id=column-1&p\\_p\\_col\\_count=1&groupId=10138&articleId=1287240](http://www.ikasbil.net/web/ikasbil/dokutekako-fitxa?p_p_id=56_INSTANCE_fLB1&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&p_p_col_id=column-1&p_p_col_count=1&groupId=10138&articleId=1287240)

### Bibliografia

- Gómez, G. 2013. Web 2.0 tresnak, hausnarketa-praktika irekiak eta ikaskuntza-sare pertsonalak: Twitter, blogak eta Google Drive irakasleen topaketetan. *Hizpide* 80: 10-33.
- Irizar, I. eta Oliveri, O. 2013. HABE Liburutegia: hizkuntzen didaktikan eta eleaniztasunean espezializatua. *Hizpide* 80: 57-67.
- Zubizarreta, A. et al. 1998. *Gramatika gaitasuna lantzen*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Euskara Zerbitzua. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.